

## **DONOSTIAKO UDALEKO GOBERNU BATZARRAREN ADIERAZPENA**

### **Martxoaren 21a: Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**

Datorren martxoaren 21ean Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Beste behin, Euskal Herrian, beste herri askotan bezala, aurten ere egun horrekin batera gure herritarrek aurkatu beharreko arrazismoaren eta xenofobiaren zio eta sorburu nagusiak salatuko ditugu. Jatorri horietako bat —beharbada, larrietasun bat—, estatuek duela zenbait hamarkada abian jarritako atzerriartasun, immigrazio eta asilo politika murriztaileak ditugu, sorlekua politika, ekonomia eta bestelako zergatikoengatik irten behar dugun eta duten pertsonen aurkakoak.

Gaur nabarmen-nabarmena da urrututa dagoela Euskal Herriak nazio moduan duen eskubidea: batetik, bere migrazio, asilo, babes, atzerriartasun eta nazionaltasun politikak definitzekoa; bestetik, herri moduan erantzun ahal izatekoa.

Eskubide urraketa horren ondorioz, Donostiako Udaleko Gobernu Taldeak ondo baino hobeto daki oztupoak dituela herritar guztien oinarrizko herritartasun eskubideak bermatzeko. Gaur egun, Donostian eta Euskal Herrian bizitzen ari gara oso eskubide ezberdinen jabe diren pertsona eta gizaldeen ondo-ondoan, gure Lurraldearen subirano diren bi estatuen irizpideen ondorioz. Ezin onartuzkoa da, zentzu politiko eta komunitik, irentsi behar izatea geure herrian eskubide berak ez dituzten pertsonen ondo-ondoan bizitzera behartuta egotea, estatuek (espainiarrak eta frantziarrak) erabaki dutelako migrazio politika hertsia bat erabiltzea, gure herrian, esaterako, atzerriartat jotzen baitu Hendaiaetik Donostiara bizitzera etorritakoa.

Zuzentarau, lege eta estatu espainiarrak eta frantsesak definituriko erakunde politika horiek badoaz Donostian eta Euskal Herrian bizi diren eta garen hainbat jatorritako pertsona migrazioaile, babestu eta errefuxiatuen eskubideen aurka.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak ondokoa onartu du

#### **ADIERAZPENA**

1. DONOSTIAKO UDALEKO GOBERNU BATZARRAK SENDESTEN DU GURE HERRIA UDALERRI HONETATIK ERAIKITZEN JARRAITZEKO KONPROMISOA, DONOSTIAR GUZTIEKIN BATERA, EDONONDIK ETORRI DIRELA ERE.
2. DONOSTIAKO UDALEKO GOBERNU BATZARRAK SENDESTEN DU GURE ANIZTASUN, MIGRAZIO ETA NAZIONALITATE POLITIKAK DEFINITU ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DEFENDATZEAREN ALDE LAN EGITEN JARRAITZEKO ERABAKIA, GUZTION ARTEAN, EDONONGOAK ETA EDONONDIKOAK GARELA ERE.
3. DONOSTIAKO UDALEKO GOBERNU BATZARRAK DEI EGITEN DIE DONOSTIAR GUZTIEI ARRAZISMOAREN ETA XENOFIARIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN ALDE ETA ALOR HORRETAN ERE HERRI MODUAN DUGUN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE ANTOLATZEN DIREN EKINTZETAN PARTE HARTZERA ETA MOBILIZAZIOEKIN BAT EGITERA.

Donostian, 2012-03-14an

Sin.: Juan Karlos Izagirre,  
Donostiako alkatea.